

## MOTZEAN

## MERIDIAN CUP

**Euskal taldeetatik zazpi jokalaria joango dira 17 urtez azpiko txapelketan jokatzen**

Gaur hasiko da 17 urtez azpikoen Meridian Cup txapelketa. Barin (Italia) jokatuko dira partidu guztiak, eta euskal taldeetatik zazpi jokalaria joango dira: Athleticetik Jon Moya, Ander Murillo, Aritz Solabarrieta eta Jon Andoni Garcia, Realetik Asier Riesgo eta Iban Zubiaurre, eta Baskoniatik Alex Goikoe-txea. Guztiak Espainiako selekzioarekin arituko dira. Italiak, Portugalek, Kamerunek, Txekiar Errepublikak, Nigeriak, Espainiak, Ghanak eta Malik jokatzen dute Meridian Cupa, eta otsailaren 2an amaituko da.



EGUNKARIA  
Roberto Rios, Lezaman.

## ATHLETIC

**Rios datorren astean hasiko da besteekin batera entrenatzen**

Roberto Rios taldearekin batera normaltasunez entrenatzen hasiko da datorren astetik aurrera. Padillak adierazi zuenez astelehenean bertan izango da Txetxu Rojoren aginduetara: «Baloiarekin entrenatzeko moduan dago».

## OSASUNA

**Bigarren talderako Delgado suitzarra fitxatu du Osasuna**

Javier Delgado, 20 urteko erdilari ezker fitxatu du Osasunak, bigarren taldean jokatzen. Delgado suitzarra da —gurasoak Cascantekoak baditu ere—

eta Sion taldean jokatzen zuen orain arte. Ezker hegalean jokatu ohi du, zelai erdian, eta Sionen 12 zenbakia zuen. Javier Delgado ekaina bitartean arituko da Osasuna Promesasekin.

**Rayoren aurkako partidua larunbatez jokatuko da**

Osasunak bi aste barru Rayo Vallecanoren aurka Madrilen jokatu beharreko partidua otsailaren 10ean jokatuko da, larunbatez. Aste horretan Rayo Vallecanok UEFAko norgehiagoka jokatu behar duenez, Osasunaren aurkako partidua larunbatera aurreratuko dute madrildarrek. Hala, Osasuna eta Rayoren arteko norgehiagoka arratsaldeko 18:00etatik aurrera izango da.

**REALA.** Joseba Llorente bihar ia hasieratik jokatuko duela baieztatu zuen galestarrak

# «Taldea hau goian egongo da»

John Toshack entrenatzailea etorkizunera begira baikor eta itxaropentsu azaldu zen atzo



JUAN HERRERO / EFE

Racingen aurka erabiliko duen joko sistemari dagokionez ideiak garbi dituela esan zuen Toshackek.

Jon Balenziaga | DONOSTIA

Bigarren itzulia hasi aurretik talde txuri-urdina azken tokian dago sailkapen nagusian, baina hala ere, John Toshack baikor ageri da Realaren etorkizunari buruz hitz egiterakoan. «Klub hau goian egongo da, seguru nago, ez dut dudarik. Gertatzen dena da gaixo guztiak denbora behar dutela osatzen».

Atzo eskainitako prentsaurrekoan egin zituen adierazpenok Realeko entrenatzaileak, eta bide batez, egungo jokalariei oharra bidali zien: «Oso lan interes-

garria da esku artean dudana, eta jokalariek bost hilabete dituzte klub honen etorkizunaren zati bat izan nahi duten edo ez erabakitzeke. Etorkizun interesgarria izango dugu. Pixkanaka galtzen joan den kimika hori berreskuratu behar dugu. Izan ere, kimika horri esker beste taldeak baino zortzi puntu gehiago eduki izan ditugu. Jokalariek den-dena eman behar diote Realari, eta hala egiten badute, etorkizuna hemen izango dute. Talde hau, lehenago edo beranduago, emaitza garrantzitsuak lortzeko lehen izango da».

Bihar Racingen aurka jokatu behar den partiduari buruz apenas mintzatu zen Toshack. Neurketa «oso garrantzitsua» dela jakiteko ez dagoela «katedraduna» izan beharrik aipatu zuen, ohikoa duen ironia erabiliz. Joko sistemari dagokionean, «ideiak garbi» dituela aipatu zuen, hortaz, atzealdean hiru zentral zelairatzen jarraituko du. Bihar hasieratik jarriko duen hamaikakoa ez zuen goitik behera baieztatu nahi izan, baina astean zehar ikusitako arrastak balekoak direla onartu zuen. Joseba Llorente ia seguru hasie-

## JOHN TOSHACK

Realeko entrenatzailea

«Taldea hau, lehenago edo beranduago, emaitza garrantzitsuak lortzeko lehen izango da»

«Jokalariek den-dena eman behar diote Realari, eta hala egiten badute etorkizuna hemen izango dute»

ratik ariko dela baieztatu zuen. «Gogokoa dut, ez soilik Sardinerro futbol zelaian jokatzeke, gogokoa dut, eta kito. Gainera, 21 urte ditu, ez da horren gaztea. Jokatzeke prest dago».

## De Pedro, titular

Iritsi berri diren Julio Cesar eta Luiz Albertorentzat ere izan zuen aipamenik galestarrak. Denbora behar dutela uste du, baina hala ere jokatu egingo dute. «Julio Cesarri erritmoa falta zaio, baina garai honetan egiten diren fitxaketek hori dute. Denbora behar dugu, bai Julio Cesar eta baita Luiz Alberto ere gure taldera egokitzeko. Gazteak dira, baina badakite Realean zer dagoen eta ez dago arazorik. Biak hasieratik ariko dira». Hasieratik ariko da baita ere Javier de Pedro, galestarrak astean zehar eginiko lan saioetan «ongi» ikusi duelako. «De Pedoren kalitatea inoiz ez dugu ezbaian jarri. Beste gauza batzuk bai, baina orain ongi dago eta titular izango da bihar». Era berean, atean Asperrek jarraituko duela baieztatu zuen, Osasunaren aurka «lan ona» egin zuelako.

## LESIONAK

**Reala.** Aranzabal jada taldekideekin batera entrenatzen ari da, baina bihar badaezpada ez du jokatuko. Aranburu, Gurrutxaga, Demetradze, Peiremans eta Pikabeak min hartuta jarraitzen dute.

**Alaves.** Karmonak luxazioa izan zuen herenegun eskuin klabikulan eta sei aste eman-go ditu jokatu gabe. Azkoitia guztiz osatuta dago, baina oraindik ez dago jokatzeke moduan.

**Athletic.** Urzaiz bere kabuz aritu zen atzo baina ez du arazorik izango gaur jokatzeke. Tiko, Carlos Garcia, Alkorta, Rios eta Ezquerro jokatuko ezinda daude.

## ENTRENAMENDUAK

**Alaves.** Taldea 11:00etatik aurrera arituko da Ibaian lan saioa egiten.

**Athletic.** Zuri-gorriak atek itxita entrenatuko dira gaur Lezaman 10:30ean.

**Osasuna.** Gaur, 17:00etan Vigon egingo dute partidua- ren aurreko azken entrenamendua.

**Reala.** Ateak itxita, gaur goizeko 10:30ean entrenatuko da Anoetan.

## PARTIDUAK

**Athletic-Deportivo.** Espainiako Ligako 20. jardunaldia, gaur 21:00etan jokatuko da San Mames futbol zelaian (ETB1).

**Racing-Reala.** Espainiako Ligako 20. jardunaldia, bihar 17:00etatik aurrera Sardinerro futbol zelaian (Santander) (PPV).

**Celta-Osasuna.** Espainiako Ligako 20. jardunaldia, bihar jokatuko da 17:00etatik aurrera (PPV).

**Alaves-Las Palmas.** Espainiako Ligako 20. jardunaldia, Mendizorrotzan jokatuko da partidua bihar 17:00etatik aurrera (PPV).